

**GIZARTE ZERBITZUETAKO EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2009-10-30eko OSOKO BILKURAREN AKTA**

Gasteizen egina (Seminarioa)
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

BERTARATUAK (GZEK-ko KIDEAK):

Fernando Fantova Azcoaga jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordea (GZEK-ko jarduneko lehendakaria).

Alfonso Gurpegi Ruiz jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Angel M. Manero jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria (GZEK-ko idazkaria).

Pedro M^a Sanchez Amado jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarteratzeko zuzendaria.

Gloria Múgica Conde andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Berrikuntza Soziolaboraleko zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren aholkularia (Immigrazio Z).

Maite Iruretagoiena andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Droga Gaietako Zuzendaritzako teknikaria.

Jesús M^a Fernández jauna.- Osasun eta Kontsumo saileko Osasuneko sailburuordea.

Ignacio de la Puerta jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria.

Mariola Serrano andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

M^a Luisa Garcia Gurrutxaga andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.

Jesús A. Pérez Arrospide andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako Saileko teknikaria.

Cristina Madinabeitia andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismoko zuzendaria.

Maite Santamaría andrea.- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Programen Teknikaria

Jon Etxebarria Orue jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Gizarteratzeko zuzendari nagusia.

Juan Ramón Larrañaga jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen Laguntzako zuzendari nagusia.

Lourdes Idoiaga andrea.- EUDEL. (Oñatiko Udala).

Dorleta Goiburu andrea.- EUDEL.

Oscar Seco jauna.- EUDEL.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

José Ramón Martín jauna.- Euskal Gorra erakundekoa.

M^a Jose Cano andrea.- Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Euskadiko Federazioa (FEDEAFES).

Juan Ibarretxe Kareaga jauna.- EAPN Euskadikoa (gizarteratzen eta gizarte-bazterketa larrian lan egiten duten erakundearen ordezkari).

Maite Diaz de Lezama andrea.- Etorrinen Laguntzarako GKE-en Euskadiko Koordinakundea, "Harresiak apurtuz".

Miguel Angel Ruiz Díez jauna.- Droga-mendetasunen esparruko erakundeak.

Natalia Díez Caballero andrea.- Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioa (HIRUKIDE).

Alberto Ponti jauna.- Haurtzaroaren alorreko Batzorde Iraunkorraren ordezkaria.

Ane Abarrategui andrea.- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkaria.

Consuelo Ordejón andrea.- Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen Ordezkaria

Pedro Fernández García jauna.- FEVASekoa.

Juan Carlos Sola jauna.- ELKARTELANekoa

Karmele Acedo Gil andrea.- Euskadiko Lan Elkarten Kooperatiben Konfederazioa.

Jesus Otaño Maiza jauna.- Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoa.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

Emilia Málaga andrea .- UGT Euskadi.

Julene Gabiola andrea.- ELA Sindikatua.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK

BESTE EUSKAL KONTSEILUETAKO KIDE BERTARATUAK (BOKAL EZ DIRENAK):

Oscar Vizarraga jauna.- KALE DOR KAYIKO. Euskadiko Ijito Kontseiluko ordezkaria.

BERTARATU EZ DIRENAK (GZEK-ko KIDEAK):

Gemma Zabaleta Areta andrea.- Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEK-ko lehendakaria).

Inés Ibáñez Maeztu andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazioaren Saileko Giza Eskubideen zuzendaria.

Koldo Hualde Mayo jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria.

Amparo Maiztegi andrea.- Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.

Bokal bat EAEko Udalen ordezkari (EUDEL).

Bokal bat Eusko Legebiltzarreko ordezkari (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Bokal bat LAB sindikatua ordezkatzuz.

Bokal bat CCOO Euskadi ordezkatzuz.

Ana Ureta Basáñez.- gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria.

.....

BILKURA-AKTA

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian (Vitoria-Gasteiz, Apaizgaitegia – Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67 -4. gela-) eta egunean. Bilkura 2009ko urriaren 30eko goizeko 9:00etan hasi da, lehendakariak finkaturiko honako gai-zerrenda honekin:

1. 2009ko uztailaren 23ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.
2. Informazioa gizareratze-gaietan Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko sailaren ordezkari izango den bokal berriaren izendapenari buruz eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren idazkari berriaren izendapenari buruz.
3. Informazio orokorra Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen garapenaren inguruan eta Gizarte Zerbitzuen sistema eraginpean hartzen duten beste zenbait legeren inguruan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindakoari buruz.
4. Hirugarren sektoreko gizarte esku-hartzeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuari buruzko aginduzko txostena.
5. Bitartekarien Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Dekretuaren proiektuaren gaineko aginduzko txostena.
6. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa arautzen duen Dekretuaren proiektuari buruzko aginduzko txostena.
7. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkor Ordezkoko kideen izendapenen eguneratzeari buruzko arrazoi-hartzea, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren osaera eta eginkizunak arautzeari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuko 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta organo horren osaera.
8. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean delegatzea Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 48. artikuluan aipatzen den aginduzko txostena emateko eskumena (lege aurreproiektuei buruz eta izaera orokorreko xedapenen proiektuei buruz).
9. Galde-eskeak

.....

Lehendakaria ez denez bertaratu, Kontseiluaren Osoko Bilkuraren mahaiburua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordea, Fernando Fantova jauna da. (Gizarte Ongizateko Eusko Jaurlaritzaren ekaineko 13ko 124/2006 Dekretuko 16.2 artikuluan xedaturikoa betez). Bertaratu direnak agurtu eta ongietorria egin ondoren, gai-zerrendako puntuak lantzen hasi da.

1. puntua. 2009ko uztailaren 23ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.

2009ko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkurako akta aho batez onartu da, baina bertaratu diren bokalek egin dizkioten zuzenketa batzuk bildu behar ditu lehenik (honako hau falta da: Ignacio Lapuertaren kargua aipatzea; Jose "Insausti" zuzentzea Zugastiren lekuan, 4. puntuko azken esku-hartzean; bertaratu gabekoen artean Kooperatiben Federazioa kentzea, bertaratuen artean ere baitago; 5. orrialdeko Gemma Zabaletaren erantzunean, gizarte-hezitzaileen elkargoari egindako erreferentzia ordeztu behar da "Gizarte-langileak" idazki bidez; Iker García "EAEko Gizarte Laneko Diplomatuaren Elkargo Ofizialak" ordezkatzeko, eta ez bakarrik Gipuzkoakoa; EAPN ez aipatu "Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra" baizik).

2. puntua. Informazioa gizarteratze-gaietan Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko sailaren ordezkari izango den bokal berriaren izendapenari buruz eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren idazkari berriaren izendapenari buruz.

Fernando Fantovak Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuei loturik bere sailean izan diren izendapenak aurkeztu ditu (GZEK):

- Pedro Sanchez Amado jauna bokal izendatu da, Gizarteratzeko zuzendaria, bere aurreko Piedad Arbaiza Villalonga andrearen ordezkari.
- Angel M. Manero González jauna GZEK-ko idazkari izendatu da, bere aurreko Isabel Paredes Zabala andrearen ordezkari.

Izendapen eta ordezkapen horiei dagokienez, bertaratutako batzuek beraietako bakoitzaren egoeraren berri ere eman dute:

- Gotzon Villaño Murga jaunak Iker García ordeztu du bokal gisa, EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.
- Amaia López andrea CONFEBASKen ordezkari bokal berri gisa dator.
- Jon Etxebarria Orue jaunak Iñigo Pombo jaunak ordeztu du, Bizkaiko FAren ordezkari.
- Bokal titular eta Turismoko zuzendari Isabel Muela andrearen ordezkari gisa dator Cristina Madinabeitia andrea.
- Immigrazioko bokal titular eta zuzendari Miguel Angel González Martín jaunaren ordezkari gisa dator Miren Amilibia andrea.

3. puntua. Informazio orokorra Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen garapeneraren inguruan eta Gizarte Zerbitzuen sistema eraginpean hartzen duten beste zenbait legeren inguruan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindakoari buruz.

Jarduneko lehendakariak Gizarte Zerbitzuetako Legearen garapenerako bere sailak jorratzen dituen jardunen eta orokorrean arlo horren berri eman du. Kontseiluaren aurreko bileran jadanik arauketa-lanerako egutegia aurkeztu zen eta agenda "ikaragarri zorrotza" denez, trebetasuna eta esku-hartzea batzeko beharra aurreratu du, eta oso zorrotzak izan behar dugu funtzionatzeko moduan, prozesua ez gelditzeko.

Elkarrizketaguneetan 3 instantzia osagarri azpimarratzea komeni da: erakundeen arteko elkarrizketaren mahaia, gizarte-elkarrizketaren mahaia, eta elkarrizketa zibilarrena. Modu horretan lan egingo da, eta arauketa-proiektu guztien zirriborroei aplikatuko zaie.

Ikuspegi horretatik hiru elkarrizketako eta esku-hartzeko prozesu egingo dira, arauketako zirriborro-zerrendarekin eta laneko egutegi zehatzarekin. Horregatik, elkarrizketako hiru aldietan ekarpenak egiteko aukera dago eta izango da (erakundeen artekoan, mahai teknikoaren bidez, zuzendarien mahaiak, eta abar; elkarrizketa sozialean, babes sozialeko mahaiaren bidez, hurrengo bilera azaroaren 9rako ezarrita duena; eta elkarrizketa zibilean, Euskadiko hirugarren sektoreko sare eta federazio nagusiekin bileren bidez. Baina berriro ere azpimarratzen du, “prozesu honetan guztian trebetasuna eta esku-hartzea batu behar dira”.

Txema Odriozolak, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko ordezkariak, “entzunaldiaren izapidea” zer den jakiteko informazio zehatzagoa eskatu du. Zeinekin eta nola egingo dugun.

Fernando Fantovak argitu dio zer den, hau da, arauak eraginpean hartzen dituela uste den eragile interesdun guztiei zirriborro hori bidaltzea (erakundeenak, sozialak, eta abar), dokumentuari ekarpenak egin ahal izateko denbora edo epe zehatza emanez. “Kasu arruntetan (bestelako arazorik gabeko zirriborroetan) bidali egiten da, alegazioak jaso, baietsi ala ezetsi, zirriborro berria bidali, Kontseilutik pasa, edo aurrerago esango dugun bezala, Kontseiluko Iraunkorretik, eta hori onartzen bada, hori aurrera doa”. Beste mahaietan jorratuko da dekretuak edo gai horrek korapilo edo zailtasun handiagoa badu, mahai horiek egokitzen jotzen duten neurrian.

Gotzon Villaño Murgak, EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialen ordezkariak, diru-sarreraren bermerako legearen prestazioen garapenaren hutsunea nabari du, etxebizitzaren osagarriarako, gizarte larrialdiko laguntzetarako, eta abarrerako.

Fernando Fantovak jakinarazi dio araudi horren garapenerako erreferentziako foroa Gizarteratzeko Euskal Kontseilua dela. Kontseilu horrek nahitaezko (eta aurretiazko) txostena egin du diru-sarrerak bermatzeko errentaren dekretu arautzaileari buruz eta etxebizitzako prestazio osagarriaren dekretu arautzaileari buruz, eta gizarteratzeko berriazko esparru horretan aurrean daukagun erroka dekretu horiek zehazten dituzten gidaliburu edo zirkularrak azaltzen hastea da. Bi dekretu horiek jadanik Gobernuaren baitan izapidetuta daudela gogoratzen digu (Kontrol Ekonomikoko Bulegoan eta Araubide Juridikoan), eta horregatik ez dira hemen egutegian aipatu.

Txema Odriozolak aipatu du puntu zehatz batean (8. Zk) Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseilurako entzunaldiaren izapidearen hasieran hitz egiten dela. Gai soziosanitarioaren gaiaren testuingurua aldatu dela jakinda (orain parekotasun modukoa dago Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta Osasun Sailaren artean), berriz planteatu du “nahiz eta legeak ez kontuan hartu” aukera ote dagoen alderdi sozialak Kontseiluan hitza izateko. (eskabide hori azaldu zuen aurreko Kontseilu batean, joan zen Legealdian).

Fernando Fantovak jakinarazi dio Arreta Soziosanitarioaren Euskal kontseiluaren zirriborroa bidaltzen dutenean gai hori jorratzeko aukera izango dela. “Oraindik ez dago horri buruzko zirriborroa ere baliagarri. Gogoeta hori aintzat hartu daiteke eskaera hori errepikatzen duzula aktan jasota gera dadin, baina ez gara dekretu horren edukian sartuko bere garaian jorratuko delako”.

Alfonso Gurpegui 3. punturako emandako dokumentuan azaltzen diren gai guztiak berriz ikusteko asmorik gabe, Plan Estrategikoak diagnosi-fasea jadanik hasi duela nabarmentzen du, horregatik “diagnosiren bat eskutan baduzue, proiektua idazten duen taldeak aintzat hartzeko garrantzitsutzat jotzen duzuen txostenen bat baduzue, guri emateko eskatzen dizuet hemen ordeztuak zaudeten erakunde eta entitate guztiei idazten duen taldeari helarazteko”. Diagnosi-fasean gaude eta hiruhileko honetan lana egitea aurreikusten dugu, eta urte amaieran diagnosi landuta eskura izatea ere, urtariletik hasita eta uztailean amaitzeko epearekin maparen gaia, memoriarena eta abarrena jorratu ahal izateko.

Txema Odriozolak aurretiaz ere eskatu zuten honako hau aldarrikatu du: gizarte zerbitzuen egoerari buruzko txostenean adineko pertsonen egoeraren azterlana egiteko aukera begiestea (nola bizi diren eta abar) pleguak landurik daudela ikusten duelako. Aurreko txostenean helbideratuta dauden adineko pertsonak azpimarratzen ziren, baina egoera euren berezko etxebizitzetan aztertzeko eskatu du.

Julene Gabiolak, ELAkoak, karteraren dekretuaren egoera zein den galdetu du, garaturikorik ba ote dagoen...

Fernando Fantovak jakinarazi du kontseiluaren erakundeen arteko aurreko bileretan esan dena eta Legebiltzarraren egoitzan ere, karteraren dekretua garatzeko laneko fitxaren eredu sinplifikatzen saiatzera gindoazela". Zehazki, azaroaren 13ko zuzendarien erakunde arteko prestakuntza-bileretan eta azaroaren 20ko gizarte zerbitzuen mahai bereziaren bileretan, fitxa-eredu berriaren zirriborroa aurkeztuko da, eta horrela azaroaren amaiera aldera edo abenduaren hasiera aldera Kontseiluaren alderdi sozialak fitxa-eredu horren egokitzeari buruz ziurtasuna izan eta parte hartu ahalko du, eta hortik aurrera prestazio eta zerbitzuen karteraren dekretuari trebetasun gehiagorekin aurre egin."

4. puntua. Hirugarren sektoreko gizarte esku-hartzeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuaren proiektuari buruzko aginduzko txostena.

Fernando Fantovak orokorrean azaldu du 4. puntu hau, baita 5.a eta 6.a ere hiru dekretuei buruzko aginduzko txostenak direla, eta "aginduzko txosten" gisa zer ulertzen den azaldu du. Bilera honen aktan egin nahi diren oharren adierazpena da. Aurretik alegazio-izapidea izan da eta alegazio horietako batzuk agian onartuak izan dira, dena dela, Kontseilu honek 3 dekretu horien txostenak egingo ditu. "Txostenak egitearen" esanahia da kide guztiek dutela aukera (bai bilera honetan, bai hurrengo egunetan) publikoki aditzera emateko, edo nahi izanez gero idazki bidez emateko, euren oharrak (bai aldekoak, bai negatiboak, eta abar edo ñabardura edo iruzkin soilak). "Hori izango litzateke aginduzko txostena, hau da, hiru dekretu horietako bakoitzean esku-hartze txanda zabaltzeko aukera izatea hona bertaratu diren pertsonen nahi izanez gero oharrak egin ahal ditzaten, bai babesteko, bai txarresteko, edo ekarpenak egiteko, edo gairen bat errepikatu edo berriz planteatzeko ere; eta nolabait, hau guztia adieraziko duen aktaren zatia izango da organo honek egingo duen ziurtagiri edo txostena". Hori da jarraitzeko proposatzen dugun metodologia, trebea izateko eskatuz (horrek esan nahi du jadanik esan diren gauzak, soilik babestea, eta ez nahitaez errepikatua). Hortaz 3 dekretu horietako bakoitzari hitz egiteko txanda bat egingo zaio, "Departamentuak azalpenen bat edo iruzkinen bat egitea egokia bada, egingo dugu eta hori soilik izango da aginduzko txostena emateko egintza, norbaitek hori egiteko beste proposamen edo formula izan ezik". Horregatik lehenik galdeketa egiten du norbaitek horri buruzko esatekorik badu, badaezpada.

Julene Gabiolak adierazi du aginduzko txostena emateko proposamena Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak ere jaso duela, eta beraiei bereziki, erakunde bakoitzaren jarrera aktan jasota geratzea baino gehiago, zama eta garrantzi berezia izan behar dutela (aginduzko txostena) uste du, (akta nahiko luzea izan baitaiteke, garrantzi gutxiagoko gauzak jaso, eta abar). Baita ere galdetu du, aurreko Gizarte Ongizateko Kontseiluetan egiten zen bezala –Saileko web-orrian jartzen ziren aktak–, jarraituko ote duten, positibo ikusten duelako hor prest dauden aktetara eta aginduzko txostenetara jotzeko aukera egotea.

Fernando Fantovak azalduko ondo ulertu ote den zehazteko, errepikatu eta aginduzko txostenak dokumentu gisa, nolabait esateko, aktaz kanpo bere izaera izateko eskatzen ari ote den galdetu du. Horrela, ELAko ordezkariak baieztatu duenez, bere aldetik eragozpenik ez dagoela azaldu du, ezta onarturiko aktak Sailaren web-orrian jartzeko ere.

Ondoren diru-laguntzen gaiko dekretuari buruz hitza hartzeko txanda hasi du (gai-zerrendako 4. puntua), eta honako hauek parte hartu dute:

Miguel Angel Ruizek (GZEKn droga-mendetasunaren prebentzioan eta gizarteratzean lan egiten duten GKE-en ordezkaria), azaldu du ez direla antolaturiko sarea, baina orokorki elkar ezagutzen dutela, elkarrekin lan egin ohi dutela eta Droga Menpekotasunaren Aholku Kontseiluaren bileretan topo egiten dutela; haien entitateei eta gizarte-zerbitzuekin eta gizarte-ongizatearekin zerikusia duten beste entitateei zuzenduriko diru-laguntzak arautuko dituen dekretu berriari dagokionez, diru-laguntzen dekretu berriarekiko bere aurkakotasuna adierazi nahi du, berak ikusten duenez dekretu horrek ez dituelako ezertan aurrekoak hobetzen bere erakundeen errealitateari dagokionez. Lehenagoko beste dekretuekiko oso hobekuntza gutxi ikusi dituzte eta batez ere, esparru horretan lan egiten duten entitateen baitan sortu duen beldurrarengatik. Gainera, nolabait, Gizarte-zerbitzuen lege berriarekin eta diru-laguntzen dekretu berriarekin datozen aldaketak "saldu" dizkieten moduarekin desados dagoela adierazi du. Adierazitak ziurtasunik ezak oso garrantzitsuak direla azpimarratu du eta oraindik prestazio eta zerbitzuen kartera ez dutela ezagutzen, ondorioz, dekretu berri hori Udaletako, Foruetako, eta Eusko Jaurlaritzako eskumenak aipatzen dituenean ez du ezertxo ere planifikatzen, batez ere drogamendetasunaren esparruan lan egin behar duten entitateen sektorean.

Gainera, soziosanitarioari dagokionez ezer argitzen ez duen ustea berretsi du eta krisi-garaian sektore behartsuenei are gehiago eragiten diela; hirugarren sektoreko entitateak babes sozial garrantzitsua izan dira Euskadin, eta bizi dugun garaian eta etortzeko daudenetan, babes hori izaten jarraitu beharko dute. "Izan ere, esan nahi dut ez Udalak, ez Foru Aldundiak, ez Eusko Jaurlaritzak ez direla trebeak izaten orokorrean gure kaleetako erronka sozialei eta kolektibo behartsuenera erronkei erantzuteko garaian eta azkenean GKEak izango gara hor egoten jarraitu beharko dugunak". Eta 2010. urtean diru-laguntzen dekretu berri horrek ez diela inolaz ere mesederik egiten uste du eta sortzen ari den beldur eta ziurtasunik eza ez direla onak beren jarduerak egin ahal izateko, erdipurdi bada ere.

Juan Ibarretxe, EAPN Euskadiko kidea (gizarteratzen eta gizarte-bazterketa larrian lan egiten duten erakundeen ordezkari), GZEK honetan errepikatu du Gizarteratzeko Euskal Kontseiluan jadanik esan dutena. Lehenik, dekretu honekin jarraituriko prozesu parte hartzailea positiboki balioesten dute, sareak parte hartzaile egin direla uste baita eta hori aurrerapauso garrantzitsua da lana egiteko garaian. Nolanahi ere, euren ustez prozeduretan, lan egiteko eman zaien epe eta denborei dagokionez, sarea osatzen duten entitate guztien artean adostasunera heltzea korapilatsua egiten zaie sareei (kontrolatzeko zailak direlako). Lehen zirriborroarekiko zenbait aurrerakuntza positiboki balioetsi dituzte. Honako kontsiderazio orokor hauek azaldu ditu:

1. Beste politika beharrezkoa dela uste du –dekretuen idazketan biltzen den bezala, eta Sailarekin bat egiten dute horretan– irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenerako babesari dagokionez. Hala ere, etxea teilatutik hasi duten irudipena du, dekretu hori behintzat karteraren definizioaren, maparen definizioaren, eta Administrazioaren eta gizarte-ekimenerako entitateen artean egingo dutela suposatzen den kontzertuaren definizioaren parean garatu beharko litzatekeela uste baitute. Finean, dekretu hori berrantolatzeke atera da aurrera, baina ez ditu ere segurutzat jo karteraren, maparen, eta hitzarmenen definizio batzuk, oraingoz ez daudenak irudikatuz, eta horren ondorioz konfiantza etorkizuneko prozesura alboratzen da.

2.- Bestalde, dekretu honek bildu egiten du Gobernuak 3 giltza aintzat hartzeko asmoa duela bere eskumen gisa: lurraldez gairako izaera, esperientzia berritzaileak eta esperimentalak. Hala ere, berritzaileak izango ez diren, esperimentalak izango ez diren eta denbora luzean garatzen ari diren dekretu horretako prozesu eta jardunak daudela ikusten badute, eta batez ere "lurraldez gairako" izaera izango duen horretaz hitz egiten dutenean, izaera hori izango ez duenak, landuta egon beharko litzatekeela uste dute eta Foru Aldundi eta Udalekin eskumenak bananduta, baina ez dakite hori egina ote dagoen.

3.- Eta Gobernuaren sailen arteko izaerari buruzkoa ere. Proiektu batzuek gizarte eta osasun arloko gaiak, gizarte eta hezkuntza arloko gaiak, gizarte eta lan arloko gaiak eta abar lantzen dituzte, “ez dakigu hori hain landuta ote dagoen”. Beraz, planteamendu orokorra da 2010ean dekretu iragankorra egin beharko litzatekeela eta dekretu formalagoa egin 2011. urterako, ordurako kartera, sektoreen arteko eskumen-banaketa, kontzertazioaren legea eta abar nahiko landuagoak izango direla baitirudi.

Eta dekretuaren ikuspegi zehatzagoei begira –proposamena horrela egin zuten–, finantzaketaren % 80ko muga ezabatzea nahiko lukete, Gobernuaren eskumena bada “aldi bereko finantzaketa hori lortzera joatea korapilatsua dela uste dugulako. Atxikita gauden lan-hitzarmenen betekizunak betetzen direla aurrekontuetako definizioak onartzean jasota geratzea nahi dugu”. Garrantzitsua da ere, eta hori orain dekretuaren garapenak alboratzen du, proiektuak aldi bereko finantzaketa ehunekotan dutenean birmoldatu edo berriz definitu ahal izatea, Gobernuak aurkeztu duen berme bat delako lortutako aurrekontuaren arabera proiektu horien artean banatzea; hortaz jardun batzuk lortzeko garesti diren aldi bereko finantzaketa batzuk behar izatea eragin badezake, eta jardun horiek zehaztu ezin diren artean eta jarduera edo programen garapena eramangarriago egin ezin den artean, badirudi dekretutik desagertu dela eta entitateentzat garrantzitsua da.

Diru-laguntzen ordainketaren epeak arautzeaz hitz egin du, “gizarte-entitateek jasaten dugun gauza baita, sektore guztietan dagoen iragaite ekonomikoan entitate finantzatzaileenak baikara, 9, 10 edo 11 hileko atzerapeneko ordainketak jasaten baititugu”. Gero, dekretuak asmoz beteriko paragrafoa zehazten du, gizarte-entitateek nahi dutena, baina epeak betetzea zaila dela aitortzen du, hala nola, jardunak garatzea ahalbidetzeko epe egokietan laguntzak emateko aginduak erabakitzeko dekretuak egiten duen aipamen interesgarria, “baina nola gabiltzan ikusirik, 2010. urtea zalantzazko aldia izango da berriz”, Gobernuaren borondatea ona bada ere, “gero onartuko diren programen garapenean entitateak eroso sentitzea ekarriko duten arazoizko epeetara ez garela iritsiko” ikusten dutelako.

Gainera, inbertsioen diru-laguntzaren lineak zabaltzeko arreta berezia egiteko eskatu du, hori aurreikusten duten beste sailek egiten duten bezala, eta horien artean gizarte-entitateak baztertzen dira diru-laguntza horietara jotzeko eta, beraz, dagokigun sailean ona izango litzateke inbertsio horietarako partida garrantzitsu bat gordetzea, garrantzitsua delako ematen den zerbitzuaren kalitatearen atzean azpiegituren kalitatea dagoela, eta azpiegiturak egokitzeko inbertsioen garrantzia ere kontuan hartzekoa da.

Fernando Fantovak hitza hartzea alegazio zehatzak errepikatzeko bada, bilera ondo kudeatzeko, egokiena idazki bidez bidaltzea da, hau da, aginduzko txostenerako egokiagotzat jo du ohar orokorrak edo ñabarduraren bat egitea, baina alegazio- edo proposamen-errepikapenen zerrenda zehatza badago egokiagotzat jo du idazki bidez helaraztea, edo bere garaian bidali zen dokumentuari egin zitzaizkion alegazio edo proposamenak errepikatzen dituztela esatea soilik (bilera luzeegia ez egiteko eta, hain zuzen, alegazioen izapidea delako gai sorta bat proposatzen den prozesuaren unea aintzat hartu ezean edonork errepikatu eta esan ditzakeena, eta berriz planteatu nahi badira aipamena egitearekin nahiko da, orain horiek guztiak banan-banan aipatzen bilera gehiegi luzatuko litzatekeelako).

Txema Odriozolak, lehenengo ekarpenean lehen zirriborroarekin kritikoak izan zirela adierazi du zehaztugabeegia zelako, kontzeptu zehaztugabeekin gehiegikeria egiten zuelako, eta gaia, benetan, ezin zitzaizela atsegin ikusten zutelako; hala ere dekretu (zirriborro) hori –eta publikoki adierazi nahi dute– asko hobetu da, haren idazketa zabala da, gehiago atsegin zaie eta babestuko dute. Dena dela, aurretik datorren mesfidantza edo mehatxu edo kritika “kirats” hori ez zaiela atsegin nabarmendu nahi du. “Lehen Miguel Angelek esan bezala, hemen gauden GKEak gara kohesioari eusten diogun babes soziala, bakoitza bere esparruan”.

Gainera, aintzat hartzen du dekretu horrek gizartearen partaidetzaren gaian babesten duena, lurraldez gaindiko eremutik –nahiz eta dekretu hori oraindik ere oso zabala dela uste–, “oraindik oso tresna zabala da zuek (administrazioa) nahi duzuen egiteko”. Ondorioz, konfiantza-botoa emango du baina administrazioak gai hori (prozesu osoa) elkarrizketatzea espero du. Illoak balioesteko Batzorde tekniko baten aukerarekiko beldurra adierazi du, erakundeek ezer esateko aukerarik gabe, batez ere administrazioak proiektuak “orraztu” nahi dituen unean. Atzeman du, alderdi sozialarentzako diru-laguntzen zenbateko txikiagoaz gain –Udalen aldean (% 20-80)–, eta alderdi hori neurri txiki batean mehatxatua eta diru-laguntzetarako administrazioaren nahiaren arabera jarduna baldintzatua izatea.

Natalia Díez Caballerok (Euskadiko familia ugarien elkarteetako federaziokoa, HIRUKIDE), zehaztu du atzo, Familiaren Batzorde Iraunkorrean, erakunde batzuen alegazio sorta bat egin zela, eta ez luzatzeagatik ez dituela orain errepikatuko, Alfonso Gurpeguik (Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria) jaso zituelako, bilera horretara bertaratu baitzen. Ondorioz, bere txostena aldekoa izango da, betiere Juan Ibarretxek eginiko alegazioetariko batzuk aintzat hartzen badira, horiek onartzeak konfiantza gehiago emango lioke, hala nola epe, ebazpen, deialdi eta gisako gaietan; “ideia berritzaileak” indartu nahi izanez gero oso zaila da hirugarren sektoreak berriztatzea finantzaketarik ez badago, eta hirugarren sektorearekiko lan hori balioesteko eskatzen du “askotan aurrera egiten dugulako nahiz eta ez jakin ekitaldi horretan egiten den proiektu hori babesten den edo ez”.

Azkenik, ustez hor dagoen mesfidantza horri begira, sektore jakin batzuetan aurrekonturik ez kaltetu ahal izateko eskatzen du eta finantzaketari eusteko ere; baita ere aurkezten denean diru-laguntzaren % 100 handitzeko, emateko eta gero gerokoak.

Pedro Fernándezek, FEVASekoak, sarreran partaidetzaren gaia aipatu du (dekretua lantzean) zuzen egin dela aintzatetsiz, eta egutegia aurrera doala epeen premia ulertuz. Partaidetzak diseinu zaindua du, eta hori ez da gutxieteko gauza, ondorengo partaidetzarako bidea zehazten baitu eta FEVASek pentsatzen du dekretu horren bidez azalduriko diru-laguntzen politika berri hori zuzena eta agian positiboa dela. Hala ere, dekretu hori Gizarte Zerbitzuen Legearen garapeneko beste dekretuen prozesu orokorrerako nahiko ezgaraikoa izan daitekeela. Ezgaraikoa denboran eta zehaztaperen batzuetan ere. Desgaraitasun hori ez da garrantzi gutxikoa, hirugarren sektorearen eremuan gehienbat zauriak sor ditzakeelako benetan –oraindik ez dakigu zein larriak–. Prozesua bera, gaur egun, entitateetan nolabaiteko zauria sortu duela jabetu behar gara –Kontseilu honetan eginiko esku-hartzeen harian eta beste bideetatik ere– mesfidantza eragitearen ildoan edo dekretuarekin azkenean gertatuko denaren inguruan. Baina neketsuagoa iruditzen zaio zauriaren ondorioz sektoreko entitate askok, txikiek, beren proiektu eta programetan nabarmen sufritzea; baita ertainek eta handiek ere. Beraz, hiru maila horietako sufrimenduaren ondoriozkoa zauri hori, aintzat hartu behar da, batez ere krisi ekonomiko egoeran eta Foru Aldundietan eta Udaletan aurrekontuen murrizketa egoeran, horrek hirugarren sektorean odoluste apur bat sor dezakeelako. Agian, azken zauri bat, oraindik ezagutzen ez dena, dekretu horrentzako 2010eko partidaren murrizketa da, hau da, dekretu guztien birmoldaketan edo berrantolaketan, azkenean 2010ean hirugarren sektoreari zuzenduriko diru gutxiago egotea. Beraz, orain egiaztatu ezin dugun zauria izango litzateke, baina aintzat hartu beharrekoa. Zentzu horretan, Kontseilu honetan parte hartzen duten eta hirugarren sektorea ordezkatzeko duten entitateek, nahiz eta balioespen ezberdinekin, dekretu honekiko iritzi “zaila” aitortzen bat egiten dute irailetik gaur egunera hobetu bada ere. Hortaz, “aginduzko txostenaren metodologiaren ordezkari orain metodologia bozketa izango balitz (hori atzean oso azkar utzi baitugu), aukera, beste aukera, ezkutuan gertatuko zena, aginduzko txostena bozkatzearena, ez dakit oso ondo zer gertatuko zen, erakundeen ordezkariarekin zer gertatuko zen ere ez dakit, nahiz eta dekretu hori hirugarren sektorekoa izan Foru Aldundiei eta Udalei ere asko eragiten baitie”.

M^a Jose Canok, FEDEAFESen jarrera azaldu nahi du bere kideek azaldutako iritziak indartuz. Diru-laguntzak arautzea ondo iruditzen zaie egia delako araudia sakabanaturik zegoela, baina ez da une egokia. Aurretiaz karterako eta prestazio eta zerbitzuetako dekretua egon behar litzateke; eta sarean ere ziurgabetasun handia sortu diela iruditzen zaie, segurtasun eza handia eta aurten diru murrizketa egongo den irudipena. Epeen gaia berdin-berdin errepikatzen du, eta horretarako urtearen hasieran agindu bat aurretiaz egiteko aukera planteatu zen, urtean zehar zeri eutsi jakiteko eta plangintza bat egin ahal izateko.

Fernando Fantovak azaldu du gai hau kudeatzen ari den Saileko arduradun gisa, partaidetza-metodologia horri esker hemen errepikatu denaz jabetzen direla, batzuetan zalantzak diren horiez, besteetan eragozpen edo aurrez aurre aurkako jarreraz. Zera adierazi du: “hasiera batean, dekretu horrekin aurrera jarraitzeko borondate politikoa errepikatu behar dugu, hau da, Saila ez dago prest 20 diru-laguntzetarako agindua egiteko, berrantolaketa-prozesu horretan egitekoa zen bezala, eta edozein kasutan ere, gaur egin diren oharretako batzuk aintzatetsiak izateko itxaropena ere badaukat. 13rako deituriko gizarte-ekimeneko sare eta federazioekin egindako “Elkarrizketa zibilaren” bileran aurrekontu-partidetaz hitz egiteko egoeran egongo gara, hirugarren sektorerako diru-laguntza jaso dezaketen hiru ildoan zehaztapen ekonomikoaz, eta erakundeen arteko bileretan edo zehazkiago Eudelekin zuzenean esparru publikoari zuzenduriko hiru diru-laguntza ildoetarako aurreikusitako aurrekontu-partidetaz hitz egiteko egoeran egongo gara eta zehazki udal esparruari begira; hori hemen ez da landu dekretu hori gizarte-ekimenaren esparrurako delako soilik.

Baita ere esan nahi dudana, zerbaiterako balio badu, gauza bat ziurgabetasuna sortzeaz jabetzen dela –benetan ezinezko iruditzen zait ziurtasunik sortu gabe gauzak aldatzea– eta guk behintzat gauzak aldatu egin nahi ditugu, eta noski, ez dago inolako mesfidantzarik, mespretxurik edo balioespen negatiborik hirugarren sektorearekiko, aitzitik, Sail honen oinarritzko ildo estrategikoa hirugarren sektorea sustatzea da, eta testuinguru estrategiko horretan kokatzen dugu hain zuzen dekretu hori, hirugarren sektorea, gizarte-zerbitzuen kontzertazio-erregimenaren onarpeneko testuingurua dela uste dugulako; elkarrizketa zibilaren ezarpen-testuinguru batean edo borondatezko ekimenaren sustatzearen testuinguruan eta boluntariotza gure boluntariotza gaiaren eremuan, hirugarren sektorea heltzen, egituratzen, eta administrazio publikoarekin elkarrizketa lana egiten jarraitzeko benetan lagundu dezakegula uste dugu, baita hala itxaro ere, eta noski, sailburuak zenbaitetan eta Kontseilu honetan ere esan duena berretsi, gizarte-ekimeneko lanaren balioespen handiena, alegia. Horren bidez, ez badago beste iruzkinik, gizarte-ekimenari diru-laguntzak arautzen dituen dekretua jorratutzat eta informatutzat jotzen dugu, eta hurrengo lantzerako joko dugu”

5. puntua. Bitartekarien Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Dekretuaren proiektuaren gaineko aginduzko txostena.

Aurreko puntuan erabiliriko prozedurari jarraituz Gizarte gaietako sailburuordeak iruzkinetarako, oharretarako eta abarretarako hitza hartzeko txanda hasi du “Horri buruzko oharrik ez dagoenez, dekretu horrekin eragozpenik edo zalantza berezirik ez dago, ...eta hurrengo puntuari hasiera emango diogu”

6. puntua. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa arautzen duen Dekretuaren proiektuari buruzko aginduzko txostena.

Fernando Fantovak, dekretu-proposamen honekin ere, hitza hartzeko txandari eman dio hasiera.

Lourdes Idoigak, EUDELeakoak, bere garaian ekarpenak idazki bidez egin dituztela esan du (maiatzean eta atzo 2. zirriborroan) eta eskatu zituzten aldaketetako bat egiteagatik esker ona adierazi du, 11. artikuluan zehazki, ...eta bere planteamendua berretsi du bai funtzionamendua, bai gehiengo hain artikulua sinpletan ez oinarritzeko, hala nola erdia gehi bat bertaratzeko soilik; ildo horretan eskatzen du erakunde-maila bakoitzaren ordezkarien erdia aintzat hartzeko, beraientzako garrantzitsua delako, beraiei dagozkien gaiak badaude, bertan egoteko eta nahiko ordezkariarekin.

Jon Etxebarriak, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, BFaren dekretuaren aurkako jarrera azaldu nahi du zehazki legetik bertatik datorren gai batengatik, hau da, izango duen egitura, dekretuak oso puntu garrantzitsuan daukan osaera. "Ordezkaritza paritariora deiturikoa beste era batera hartu behar dela uste dugu, eta ez hori, orduan, ikuspegi eta baldintza honetan guk ez dugu aldeko botoa emango edo ez gaude dekretuaren alde, Horregatik zehazki".

Juan Ramón Larrañagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, ados daudela adierazi du eta horrela agerian geratu da zentzu horretan BFaren interpretazioarekin, hau da, Organoaren paritateari dagokionez (EJ, Foru Aldundien eta Udalen ordezkari kopuru berdina). Finean, dekretuan proposaturiko paritatearekin ez gatoz bat.

Fernando Fantovak ulertzen duela azaldu du baina "legegileak ezarri zuen Kartera eta Zerbitzuen Dekreturako beharrezko zela kasu bakoitzean gaia dagokion erakunde-maila bakoitzak onespina eman behar izatea. Ez zituen ezarri hori beharrezkoa zuten beste gaiak, eta Eusko Jaurlaritzako kideen eta beste erakunde-mailetakoa kideen arteko kideen artean izaera paritariora ezarri zuen". Horregatik uste du, legean dagoena ezin dela dekretu bidez zuzendu. Hori da arrazoia formulazio horri eusteko.

Alfonso Gurpeguik, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak, iritzi hori indartu du organoa adosmenarekin sortu zela zehaztuz, erakundeen arteko organoa baita. Organo hori blokeatu ahal izateko aukera sartzeak ere zentzurik ez duela argudiatu du, ezta zentzurik izan ere Gobernu bakarrik bertaratzeko balitz, harekin adostea, hau da, aipaturiko gehiengo gaia: organoaren baitan erabakitzeagatik ere ez luke zentzurik edukiko erakundeen arteko lankidetzaren organoa baita. Baina idazketa hori legeak zehazten duenari hobeto egokitzen zitzaioala pentsatzen du, bestela legeari aldaketa egiten ariko ginateke, eta legea "ia" aho batez onartu zen, gogorarazi duenez.

Aurrekoaren ondoren, **Fernando Fantovak** "dekretu horri buruz beste oharrik ez badago, informatutzat jotzen da eta hurrengo puntuari hasiera emango diogula" ondorioztatu du

7. puntua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkor Ordezko kideen izendapenen eguneratzeari buruzko arrazoi-hartzea, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren osaera eta eginkizunak arautzeari buruzko ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuko 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta organo horren osaera.

Fernando Fantovak gai honi buruz duen ideia argitu du. Funtsean, GZEK Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren oinordekoa da –dinamikan, funtzionamenduan eta abarrear–, eta arrazoi Horregatik benetan oso organo zabala da bere osaeran eta oso plurala eta desberdina bere kideen artean. "Hori, arauketako oso egutegi sendoa daukagula aintzat hartuta, Batzorde Iraunkor Ordezkoa aktibatzea edo berriz aktibatzea komenigarri egin dezakeela iruditu zitzaigun eta aginduzko txostenak egiteko aukera ematea Batzorde horri. Horren asmo bakarra Kontseiluko kide guztiak presentziaz ez bildu behar izatea da hain ugari diren dekretu horietako bat lantzeko dugun bakoitzean.

Gure ideia hori guztia parte hartze eta informazio gaitasun handienarekin bat egitea da, posta elektronikoko bidez, Iraunkorreko kide ez denari baina gai zehatz batengan interesa duenari bertaratzeko aukera emanez; aukera horrekin, hainbeste jende, hainbeste aldiz ez “zirikatze” –nolabait esateko– modua izango genuke, oso ahalegin handia eskatuko digun Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren eraikuntzaren oso une berezian. Arrazoi Horregatik lehenbizi 7. puntuan planteatu dugu Batzorde Iraunkor Ordezko kideen izendapenen eguneratzeari buruzko arrazoi-hartzea, eta hor da aintzatestekoa alderdi sozialaren alde aurreko bilera, eta BIOaren osaera azkenik nola egingo den ikustekoa”.

Alfonso Gurpeguik zehaztu du GZEKaren Dekretu arautzailean ezarritakoan oinarrituz mugatzen dela BIOen erakundeen eta gizarte eragileen ordezkariak, hau da, paritarioa dela horietako bakoitza 9 ordezkariarekin. GZEKaren Osoko Bilkurari Vitoria-Gasteizen (Lakua), urriaren 28an, alderdi sozialaren eta bertaratu ziren entitateek hartutako erabakiaren ondoren alderdi sozial hori aurkeztuko duten honako 9 entitate hauen bileraren berri eman dio:

- 1- Euskadiko Pentsiodunen eta Erretiratuaren Probintzia Elkartearen Lurralde Federazioaren ordezkaria GZEKari.
- 2- Familiaren esparruan lan egiten duten erakundearen (HIRUKIDE, Euskadiko Familia Ugarien Elkartearen Federazioa) ordezkaria GZEKari –Familia Batzorde Iraunkor Sektorialak proposatua–.
- 3- Gizarteratzean eta gizarte-bazterketa larrian diharduten erakundearen ordezkaria (EAPN Euskadi), Gizarteratze Batzorde Iraunkorrek proposatua.
- 4- Zentzumen urritasunaren eremuan lan egiten duten erakundearen (ONCE, Euskadi) ordezkaria GZEKari.
- 5- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren (FEVAS) ordezkaria GZEKari.
- 6- Drogamendetasunean prebentzioaren eta gizarteratzearen esparruan lan egiten duten erakundearen (SIDALAVA) ordezkaria GZEKari –Droga Menpekotasunaren Aholku Batzordeak proposatua–.
- 7- Hautzaroaren esparruan lan egiten duten erakundearen (AGINTZARI) ordezkaria GZEKari –haurrak eta nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak proposatua–.
- 8- Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen (ELKARTEAN) ordezkaria GZEKari.
- 9- Etorkinei Laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundearen (HARRESIAK APURTUZ) ordezkaria GZEKari –Euskadiko etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak proposatua–.

Amaia López Iriondok, CONFEBASKeko ordezkariak, 28ko bileran parte hartu zuen eta “alderdi soziala” deiturikoa izendatzeko jarraituriko prozeduraren aurrean bere harridura adierazi du. Jatorria gizarte-eragile heterogeneoak barnean hartzen dituen 12. artikuluko f letraren idazketatik dator (hirugarren sektoreko erakundeak, sindikatuak, enpresariak eta abar). Egin zen bozketan abstenitu egin zirela adierazi du bokalak izendatzeko garaian jarraituriko prozedura ez zutelako ez ulertu ez sinetsi. Prozedura arautuagoa izan behar zuela uste zuten, Kontseiluaren proportzionaltasuna errespetatu edo islatuko zuen gutxieneko irizpide batzuk bete behar zituela; Horregatik abstenitu ziren eta jarrera horri eusten diote.

Julene Gabiolak, ELAkoak, CONFEBASKen planteamenduarekin bat egiten duela jasota geratzeko eskatu du, Kontseilua arautzen duen dekretuak BIOaren osaera zein den izendatzeko betekizuna Osoko Bilkura honi ematen diola uste dutelako. Ondorio horietarako, eta hori Bilkuran eztabaidatua izan arte –Iraunkorra izendatzeko eskumena baitauka–, ordura arte gauzak zeuden bezala uzteko eskatu zuten idazki bidez (hau da, aurreko eta egungo BIOaren osaera errespetatu, Osoko Bilkurak beste zerbaitekin erabaki arte). Eta argitzeko eskatuz jarrera hori berresten dute, batez ere alderdi sozialaren ordezkariak nahasia dagoela argudiatuz.

Angel Manerok, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikariak, laburbilduz azaldu du bilerak nola egin zuen aurrera eta eskutan izan ziren zenbait aukera: a) alderdi sozialeko alderdi bakoitzak GZEKren Osoko Bilkuran duen ordezkari bat proportzionala; b) gutxieneko ordezkari bat, “bloke” bakoitzari ordezkari bat gutxienez ziurtatzen diona eta c) zerrenda irekiak bozkatu. Eta azkenik adierazi du hirugarren sektoreko erakundeen lehentasunezko bultzadarekin, azken prozedura hori inposatu zela eta Alfonso Gurpeguik aipatu berri dituen entitateak hautatu zirela.

Fernando Fantovak Emakunderen Kontsulta Batzordearen ordezkariari argitu dio ez dela erakunde hau BION zein egongo den erabakitzen duena GZEKren alderdi sozialaren gehiengo baizik. Gainera aitortu du, benetan, alderdi sozialari dagokionez, ez dagoela ezarrita ezta mugatua ere haren kideetatik zeinek osatuko duten BIO. Ondorioz, bileran jarraituriko sistema egokia ote zen aztertzerakoan desadostasuna izan da iritzietan. Entitate guztiek dute Iraunkorreko 9 pertsonen artean bat izateko aukera, baina bertan egotea alderdi sozialaren autorregulazioaren baitan dago.

Gotzon Villañok, EAEko Gizarte Laneko Diplomatuaren Elkargo Ofizialen ordezkariak, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikariak esandakoa berretsi du batzuek sektoreka bozkatzera sustatu zutela esanez, baina ez zenez onartu, “azkenean ordezkariak hirugarren sektorearen aldera jo du nabarmen, beraz ez gaude ordezkaturik ez profesionalak, ez bestelako erakundeak”. Zentzu horretan hurrengo aldiatarako proposatu du, erakundeetako alderdiaren osaera mugatua den bezala (Gobernuaren, Foru Aldundien, eta Udalen ordezkariak badago), alderdi soziala era berean banatzea.

Jesús Otañok, EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialen ordezkariak, aitortu duenez “prozedura hori izan zen, eta bozketako emaitza bestea”. Bileran kide batzuek zenbait gaiei buruz hausnarketa egin nahi izan zuten, baina planteamendu horiek guztiak osoko Bilkuran lantzeko bidali ziren. Horregatik hemen, Osoko Bilkuran, hitz egingo du. Bere planteamendua da epeak aldatzeko aukera aztertzea, jadanik aipatu den ildoan: prozesuan formaltasun gehiago (ordezkarien hautaketa).

Bozketaren ondoren ordezkariak hirugarren sektorearen aldera jotzen duela aitortu du. Ez daude sindikatuak, ezta enpresaburuak, ezta profesionalak, ezta entitate batzuk (ez daudenak nahitaez hirugarren sektorean) eta hori, gutxienez, ez da GZEKren erakusgarria. Azkenik –hori ez baitzen bileran landu– BIOak bere jardura garatzeko erabiliko duen prozeduraren berri galdetu du eta partaidetzako gaia (Kontseiluarekin lankidetzatik eta “gogaikarria” ez izatetik hasita).

Fernando Fantovak ñabartu duenez “berriki BIO osatu eta gauzak egin ahal izateko gaitasuna eman zion proposamena, prozesuaren kalitate demokratikoa eta parte hartzailea hobetzeko aukera zen”. Bere iritziz “nahikoa da, Kontseilu honetan zenbait kide badaude aurkakoa gertatzen dela baiesten dutenak, urrats hori ez emateko, hau da, urrats horrekin ez jarraitu, bilera handi eta errepikakorrak saihesteko”. Ondorioz, “ez da ezer gertatzen; guztiak atseginago dugun BIO horren osaera lortzeko epea zabaltzen dugu, eta nire aldetik Batzordearen konfigurazioa atzeratzen dugu. Asmo hori zeukan urratsa emateak ez zuela merezi uste baitu, urrats horrek Kontseilutik at uzten dituela uste duten eragile kuantitatiboki eta kualitatiboki esanguratsuak daudela esan nahi badu. Beraz, irabazten dena, pertsona batzuk hainbeste ez bildu behar izatea, ez du merezi galtzen denaren aldean, hau da, jendeak behar bezala bere burua ordezkaturik eta parte hartzen sentitzen duela ikustea. Horren arabera, beste proposamenik ez badago, GZEK-ko jarduneko lehendakariak urrats hori ez ematea nahiago du. Amaitzeko esan du, “gehiengoz aparte, urrats horrek jokoan kanpo uzten dituela uste duten pertsonak badaude, eta prozesu hori ez dela nahiko argia, nik nahiago dut urrats hori ez egin”.

Karmele Acedok, EAEko gizarte zerbitzuen sektorean presentzia duten Kooperatiben ordezkariak, bileran eta bozketan parte hartu zutela azaldu du, baina ordezkariaren pluraltasuna bermatua ez dagoela aitortu du, aipatu den bezala; horren ondorioz, orain edo etorkizunari begira ote jakin gabe, parte hartzea bermatzea proposatu du (“kooperatibak ez gaude...”) hartuko diren atazen zehaztugabetasuna dela-eta, orain esku artean dugunaren zati handi bat hemen eztabaidatu beharko baitugu. Landu behar diren gaien garrantzi handiak era egokian ordezkatuta egotea eskatzen du.

Oscar Vizarragak, EAEn Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren ordezkariak, jadanik esan denaren harian, Kontseilu honetan Ijitoen Kontseiluaren gaitasuna zein den argi ez duela esan du (ez dauka ere argi hitzarekin baina botorik gabe ote dauden...guztia oso sakabanaturik dago), eta gaiak Batzordean lantzen badira agian ezin dute parte hartu. Horrek zalantzak pizten dizkio GZEKaren Osoko Bilkuraren gaiak bakarrik lantzeko edo BIOra ere, Ijitoen Kontseilua deitu behar ote duen jakiteko. Faltan botatzen duena Ijito Herriaren ahotsa da, dokumentu guzti-guztietan (nahitaez jakinarazi behar direnak) inork ez duelako inolako zalantzarik Kontseilu honetan lantzen den guztiak eragiten diela. Gizarte Gaietako sailburuordearen azken hitza hartzea txalotu du, BIO abian jartzea ez behartzeari buruz, baina egiten bada, ez dauden eta egon nahi dutenen (ez direlako GZEKaren bokalak) parte hartzea nola arautuko den galdetu du.

Pedro Fernandezek, FEVASekoak, alderdi sozialean “hau Iraunkorraren nahasmena dela” aipatu du, erakunde alderdiak ez duena, araututa dagoelako. Eta orain 9 bokal horiek ordezkatzailak ez diren gai hori... bere iritziz “Sailak bilera hori Osoko Bilkura baino 2 egun lehenago deitzea ez da ere oso onargarria, komatxo artean, “nahaspila” honetarako; guk hor ahal duguna egingo dugu, ordezkariak hautatu behar direla, eta horrela daude kontuak...aurrera atera dezagun, eta orain ordezkaturik ez gaudelako zera... eta atzera egin behar”. Ez zaie oso onargarria iruditzen. “Jakinda ere –asteazkeneko bileran geunden 15ek–, eta horrela esan genuen, aginduzko txostenak Osoko Bilkurara ez igarotzea (eta eztabaidatuak ez izatea) erabat ortodoxoa iruditzen zitzaigula. Horregatik, BIOaren alderdi sozialaren osaerari buruzko hausnarketa zabaltzea proposatu du, agian aipatu den blokeen edo sektoreen ildoan, zuzentzat jotzen duena, baina Iraunkorri eustea beharrezkotzat jo du (dagoena, “eratu” duguna); eta prozesu honen guztiaren tresna gisa erabili, baina agian aginduzko txostenen zaintzarekin (nahiz eta ez dakien horrek egiteko lana gehiago edo gutxiago zailtzen ote duen).

Fernando Fantovak berriz esan du BIOa berriz aktibatzea eta Iraunkorrak aginduzko txostenak egiteko ahalmena delegatzea proposatzeko garaian Sailaren asmo bakarrak, Kontseiluaren zabaltasunarekin eta emango diogun erritmoarekin zerikusia duela. Beraz, gaitasun hori Iraunkorreko Osoko Bilkurara eramateko egokia ote den zalantza-izpirik badago, eta Iraunkorraren osaerari buruz zalantza-izpirik badago, “nik bi proposamenak atzera botatzen ditut eta sinpleki, hausnarketaldia zabaltzen dugu, hain zuzen”. Iraganeko garaian Iraunkor horren osaeran berak parte hartu eta arazorik izan ez zuelako –kanpo aholkulari gisa– urrats hori egin nahi ez duela aitortu du; osatu zen eta funtzionatu zuen. Agian Horregatik gehiegizko konfiantza izan du arazorik egongo ez zela pentsatzean, baina egotekotan, bai gai batean edo bestean, hausnarketaldia zabaltzen da. Bai Iraunkorra prestatzeko moduan proposaturiko formulazio bat zehazteko edo ez, bai Iraunkorraren Osoko Bilkuran delegatu daitezkeen gaien, gaitasunen edo mekaniken aukerak zehazteko. Horrenbestez, aintzatespen hori berresten du Osoko Bilkurak aztertzeo. Orain ez da alderdi sozialak harturiko erabakiaren zuzentasuna edo zuzentasunik eza balioesten hasiko baina, jakina, ez zaio gaitasun hori BIOari delegatuko. Nahiago du ez egin, asmo bakarra, hain zuzen, bizkortzea zela ikus dadin nahi duelako, beste edozein pertsona bertaratu daitekeela onartuz, eta parte hartzeko mekanismo guztiak egotea. Zalantza txikiaren aurrean, nahiago du “urratsa atzera” egin.

Amaia López Iriondok lehenagoko azalpena argitzeko hitza hartu du, eta Jesusek eta Gotzonek esandakoa berresteko. Autoerregulazio-eskasiak harritu zuela berretsi du, ez zekitelako zein irizpide atxiki. Kontseilu honetan, eta alderdi sozialean, gai honekiko beraiek baino aktore protagonistagoak (CONFEBASK) daudela uste dute. Horregatik, BIOarako hautatu zen ordezkari onartzeko inolako arazorik ez dutela onartu du, baina, etorkizunari begira, jardun-protokolo bat ezartzeko eskatu du.

Juan Carlos Solak, ELKARTEANekoak, beti egin denarekiko aurrekari txarra iruditzen zaiola esan du, Pedrok adierazitakoaren harian. “Ordezkaritza justifikatu edo ez, bozketara bertaratu ez ziren kolektiboak izan direlarik”. Ez du ulertzen orain interesa dutela esatea, BIOaren osaera erabakitzea zihoan bilerara bertaratu gabe. Eta ordezkari egokiaren edo “blokeen” gaiari buruz bilera horretan esan zuena berriz esan du: gizarte-zerbitzuen elkarte-mugimenduek beren erreferentzia GZEKa da “hemen dago jokoan nire bizitzako mamia, zerbait aldatzea saiatu beharreko tokia, nik parte hartzea justifikatua dagoena”. Hemen bertaratu diren beste entitateak ere badaude gizarte-foro askotan ordezkari daukatenak eta guk ezin dugu bertan egon. Horregatik, alderdi sozialak bere etorkizun osoa erabakiko den tokian egotea defendatzea justifikaturik dagoela uste du. Hortaz, erabat bidegabekotzat hartu du Administrazioak (Sailburuordetzak) planteamendu hori egitea behin erabakia hartu eta gero, ordezkari egokia den edo ez esanez. Eta orain zalantzak ote dauden esan du... zalantzak ziur egon dira dekretuan bertan “beti zalantzak daude baina ez da atzera egiten onartu edo ez galdetuz, batzuk kanpoan geratu direlako. Barnean gaudenak ere prozedura justifikatu dezakegu”. BIOan ez daudenen egonezina ulertu du, baina Iraunkorrean egoteko interesa erakutsi zuten 15 ordezkari bertaratu ziren bilerara, eta bederatzi bakarrik aukeratu behar izan zituzten (Administrazioak esan duena). “Denek onartu eta pausoa eman bagenuen, eta bozketa egin bagenuen, logikoena errespetatzea da”. Gizarte-kolektibo batzuk kanpoan geratzea bidegabekoa iruditzen zaio baina beste osaera diseinatzen delako beste zati bat (beraiek) kanpoan geratzen bada, hori ere bidegabekoa da. Gizarte zerbitzuetan denek ekarpen asko egin ditzakete, bereziki horien pertsona eskatzaile eta erabiltzaileak.

Jesús A. Pérez Arrospeidek, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako Saileko ordezkariak, jarrera guztiei bere ulermena adierazi die, guztiak arrazoizkoak, eta –ñabardura guztiak barne– Gizarte Gaietako sailburuordeak planteaturiko berrausnartzea justifikaturik dagoela uste du. Zentzu horretan, jasota gera dadin nahi du, gaiko eskumeneko arduradun zuzenek erabaki bat edo beste hartzen badute orain, jakin dezatela ez daudela bakarrik, hau da, ez dadila izan hirugarren sektorearen eta Departamenduaren arteko liskarra edo antzekoa.

“Kide eta Gobernuko zati gisa iruditzen zait justifikaturik dagoela eta nik berrausnartzea babestuko nuke erabaki horrek dakartzan ñabardurekin, eta erabakiak hartzeko arazoekin”. Gainera, Erabakiaren bigarren puntu bat dago, hemen auzitan dagoena, Kontseiluaren Osoko Bilkuraren delegaturiko eskumena hartzeko gaitasuna aipatzen duena. Ikuspegi horretatik planteatzen du (gai hori liskar gisa ez aintzat hartzeko), Kontseiluak berak, bozketa bidez, gai hori berrausnartzea benetan justifikaturik ote dagoen gogoan hartzea, balioesteko ikuspegiak duten gaiak sortu baitira.

Oscar Vizarragak esan du beraiei (ijitoen kolektiboak) ez zietela asteazkeneko bilerara deitu, eta ez du Batzordean egoteko eskaera aldarrikatzen ere, baina ijitoen kolektiboak GZEKan “eskubide osoz” egoteko eskatzen du. Batzordea abian jartzea desegokitzat jotzea balioesten duela berretsi du “guztiak ados ez bagaude”.

Alberto Pontik, Hautzaroaren alorreko Batzorde Iraunkorraren ordezkariak, ikusten du bidezkoa dela alderdi soziala baldin badago, bera izatea bere ordezkariak izendatzeko mekanismoak ezartzen dituenak. Bistakoa da alde batera egiten duela, baina berrausnartzeari buruzko segurtasun juridikorik ere ez dago, finean, dekretuak dioena baitio, eta ez dio Osoko Bilkurari alderdi sozialaren ordezkari zuzenean izendatzeko boterea ematen.

Gauzak horrela, egintza juridikoa bat izan behar dela iradoki du eta ez mugatu Kontseilu honen eta egungo Gobernuaren borondate onera, egoera hau 4 urteren buruan errepikatuko delako, eta agian orain hemen ez dauden beste pertsonekin. Ondorioz, oinarri sendoagoa eman behar zaio. Hitz hartu duten pertsona guztiek, benetan, arrazoizko argumentuak eman dituzte (ez baikaude bloke edo eskusibotasun dinamika batean) baina surrealizatzen jotzen du "duela bi eguneko bozketa zalantzagarriz jotzea. Izaera horretako Batzorde batek eragilea, eraginkorra, adierazgarria eta abar izan behar duelako.

Txema Odriozolak, aurretik azaldutakoarekin bat egin du, eta ez zaio serioa iruditzen alderdi sozialeko 24 kideak gonbidatu baziren, eta 15 bakarrik bertaratu, Kontseiluaren eta Batzordearen dekretu arautzaileak dioena dioenez azken horren osakeraz, horren ondorioz aukeratu zen; Batzordearen eginkizunak dekretukoak zirela argitu zen... "hori guztia erabakigarriak ote ginen edo Osoko Bilkurarekiko erlazioa zalantzan jarri gabe. Dena den, dirulaguntzen dekretuaren gaia ikusita, dirulaguntzen gaia benetan nori axola zaion galdetu dute. Ba, funtsean hirugarren sektoreari. Gainerakoek iritzia eman dezakete, baina denek berriz bozkatzeko saiatzea ez zaio serioa iruditzen. Bozkatu nahi den "blokeen" gaia dekretuan ez badago (alderdi sozialak hautatuko ditu), Kontseilu honen osakera ere zalantzan jarri beharko genuke.

Jesús Otañok, Txemak azaldutakoarekin bat egin du, prozedura horrela izan zenez, demokratikoa izan zen eta bertan erabaki genuen, eta emaitza hori izan zen. gai zehatz batzuk landu ez zirela berretsi du eta Osoko Bilkurara bideratu zirela, eta horregatik atera direla atera diren gaiak. Gainerakoan, prozedura gardena izan zen eta aukeratzeko ardua geneukanez horrela erabaki genuen.

Juan Ibarretxek, Araudiari eutsi dio eta horrek oso argi esaten du "Iraunkorreko osakera erabakitzen duena Osoko Bilkura da, beraz, zerbait gaizki egin dugu". (Fernando fantovak argitu dio Iraunkorra eratuta zegoela eta orain egiten ari garena alderdi sozialaren osakera aldatzea dela, eta horren berri eman zaiola Osoko Bilkurari). BIOaren eginkizunei dagokionez – bileran hitz egin zenaren arabera– eginkizuna Osoko Bilkurarako prestakuntza-lanak direla adierazi du, hori da ñabardura garrantzitsuena, eta Osoko Bilkura da aginduzko txostenak egiten dituen.

M^a Jose Cano, FEDEAFESeko kide bada ere, BIOtik kanpo geratu den erakunde bakarra, bere kideen bidez ordezkaturik sentitzen da, baina osoko Bilkura honetan bileretara joateko aukera dagoela esan denez, bertaratzeko edota dokumentazioa jasotzeko interesa erakutsi du; Batzordearen aginduzko txostena delegatzeari buruz dagoen zalantza azpimarratu du, ezin dela uste baitu, bere ikuspuntutik BIOari dagozkion eginkizunen artean Osoko Bilkuran lantzeko gaien aurretiazko txostenak prestatzea baitago, baina ez du aginduzko txostenak egitea aipatzen, hau da, hori bezalako gauza garrantzitsu batean arauan ez dagoena, ezin da eskuordetu.

Fernando Fantovak, azpimarratu du bere ikuspuntutik, Osoko Bilkurak bere eskumenak betetzea BIOan delega dezakeela (5.2 artikulua ezartzen duenez). Orain hemen egitea dagokiguna, izendapenen eguneratzearen arrazoi-hartzea egitea edo ez egitea da. Hemen izendapenen eguneratzerako ezarritako prozedura bat dago, eta Osoko Bilkura honek eskumena du eguneratze horren arrazoi-hartzea egiteko edo ez. Hau da, BIOa bazegoen, haren kideen eguneratzea egin da, alderdi sozialak hala eskatuta, erabat baliozkoa dena, eta orain Osoko Bilkura hau burujabe da eguneratze horren arrazoi-hartzea egitea edo ez erabakitzeko. Beraz, eragozpenik ez badago, jarduneko lehendakariak gai hori bozkatzeko proposatu du. Arrazoi-hartzen bada era horretan osatua geratuko da, eta ez bada arrazoi-hartzen ez da osatua geratuko. Horren ondoren, Iraunkorraren osakera aldatu edo ez (eta berak 8. puntua kentzea proposatzen du), aginduzko txostenak egiteko eginkizuna duen BIOaren ordezkariak dagoen bozkaturiko dugu.

Laburbilduz, Gizarte Gaietako sailburuordeak puntu hori kentzea proposatu du baina adostasunik ez dagoenez eutsi egiten dio eta Osoko Bilkurari eskatzen dio izendapenen eguneratzea arrazoi-hartzen den edo ez iritzia emateko.

Jesús A. Pérez Arrospeidek, planteatu du ez dela bateraezina, hau da, esan berri den bezala, ez dagoela adosmenik arrazoi-hartzeko proposamena kentzeko proposamenean. Berak adosmenik dagoen edo ez badakiela aitortu du, jarrerak norbere izenekoak direlako. Tratatze horretatik ateratzeko egoeraren berrausnartzetzat hartzen dena bozkatzea proposatu du gehiago lantzeko eta, nolabait, prozesu hau saihesteko. Funtsean ez garelako etekin bilatu edo gai pertsonalez ari hitz egiten, adostasunaz baizik.

Fernando Fantovak proposamena argitu du, hau da, 7. eta 8. puntuak ez lantzea, eta puntu horiek atzeratu. Baina entzun dituen iritzi batzuen arabera ezetz iruditu zaio, jarraitu behar dela. Baina berak gai-zerrendako puntu bat ezin duela kendu esan du, baiespen orokorra ez baldin badago. Beraz, beste irtenbiderik ez dagoenez, izendapenen eguneratzearen arrazoi-hartzea bozkatzea egiten du. Eta Osoko Bilkura honek BIOaren osaera berria onartzen badu, osaera berri horrekin osatua geratuko da. Eta ez badu onartzen, aurreko osaerarekin geratuko da, eta berriz joko dugu, hala nahi izanez gero, ordezkariak bozkatzera.

Alfonso Gurpeguik, kontzeptua argitu du –kide batzuek “arrazoi-hartze” hori zer den zehazteko eskatu dutelako–, Osoko Bilkura dela Batzordea izendatzen duena. Asteazkenean egin zena, “ez dakit trebetasunez edo trebetasunik gabe” Batzorde Iraunkorren ordezkariak Osoko Bilkurara jadanik adostua etortzeko erraztasuna ematen saiatzea zen, bestela Batzorde Iraunkor Ordezkoaren ordezkariak Osoko Bilkura honetan eztabaidatuko zela uste genuelako. Hori da orain Osoko Bilkura honek egin behar duena: Batzorde Iraunkor Ordezko hori eratu. Beraz, izendapenen arrazoi-hartzea. (“bozkatzen ez bada eta jardun hori atzeratu –Pérez Arrospeidek adierazi duenez–, eta hori gai-zerrendan puntu berria izango zen, Gurpeguiren iritziz).

Miguel Angelek, esan nahi du oraintxe bertan berriz alderdi sozialaren osaera balioestea, zintzoki bere kideekin bat egiten du, ez da egokia. Hautaketa argia izan zen, demokratikoa eta oraintxe bertan, gaur, alderdi soziala berriz biltzen bagara ordezkariak aukeratzeko, kideren bat alda liteke baina egoeraren % 90 ez zela aldatuko uste du, zintzoki. Ordezkariak nola hautatu behar diren araututa dagoen eran asteazkenean bertaratu ginenez, baita Eusko Jaurlaritzako teknikariak ere, argi daukagu prozesua argia izan zela, irekia, alegazioak parte hartu ez duten entitateenak direla, Hezitzaileen Elkargoa eta CONFEBASK izan ezik; azken horiek egon ziren eta parte hartzeko euren interesa adierazi zuten. Berriz azpimarratu du prozesua argia izan zela, gardena eta alderdi sozial osoa ordezkaturik dagoen ala ez, ez da bertan zeudenen arazoa, eta hori beste arazo mota bat da, horrela aukeratzeko da alderdi soziala (Iraunkorren kide kopuruaren arabera Iraunkorrek kolektiboak eta taldeak kanpoan uztera behartzen ditu).

Fernando Fantovak, abagune honetan, Iraunkorra eratzen tematzeak zertarako balio duen galdetu du, egin eta berehala txostenak egitea delegatuko ez dugula erabakiko badugu. Gero erabiliko ez dugun tresna bat sortuko dugu. Sen onak esaten duenez, Iraunkorra berriz aktibatzeak eginkizun hori baitzeukan: Kontseiluaren funtzionamendua liberatzea edo kongestioa kentzea. Hemen ahal bezain parte hartzaile, arrazional eta demokratikoak izatea da xedea. “Baldintza horietan, ni neu izango naiz erabiliko ez duen lehena, Osoko Bilkura deituko dut, zalantza-izpi bakarra duen Iraunkorra ez dudalako deitu nahi”. Eta ez da onartuko aginduzko txostenak delegatzea. Zer axola du era batera edo bestera osatzea?, ez da aktibatuko gaiak Osoko Bilkurara eramango ditugulako. Ondorioz, Pérez Arrospeideren proposamena jasoz, gai horien Sailaren antolakuntzak beste proposamena egin arte atzeratzea proposatzen dut, eta 7. eta 8. puntuei ez ekitea. Zalantzaren aurrean, nahiago du aukera irekiena, demokratikoa eta gardenena bilatu, iragan eguneko bileraren zilegitasuna zalantzan jarri gabe, agian zilegitasun osoa izango du, baina 7. urratsa ematen bada 8.a ez dela emango aitortuz. Beraz, zer zentzu du eta zer behar dago 7. urratsa gaur emateko? galdetu du. Ezin al dugu bilera 6. puntuan gelditu eta beste bilera batera atzeratu Sailak proposamen landuagoa prestatzeko, herenegungo bileran alderdi sozialak harturiko erabakia zalantzan jarri gabe?. Hori da bere proposamena, eta horren ondoren azken hitzen txanda eman du eta azkenik bozketa egingo da.

Txema Odriozolak, esan du BIORi buruz hitz egiten duen 12.1 f) artikulua hitzez hitz irakurri nahiko lukeela: “Gizarte-zerbitzuen eremuko erakundeak eta gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten sindikatuak, enpresa-erakundeak, kooperatibak eta profesionalen erakundeak ordezkatzeko dituzten bederatzi kide, erakunde horiek Osoko Bilkuran dituzten ordezkarien artean aukeratuak, hau da, bileran benetan egin zena. Manipulatu edo alderatu ote zen zalantzarik ez geratzeko...”

Fernando Fantovak Pérez Arrospideren proposamenaren bozkatzeari egin du. Proposamena honako hau da: “gai-zerrendako 7. puntua eta hurrengoak, geroagoko bilera batera atzeratu edo bilera 7. puntuarekin jarraitu”.

Behin galdera egin eta jarraian, eta eskua jasoz, 20 pertsona puntu horiek geroagoko bilera batera atzeratzearen alde daude, eta 9 pertsonak gai-zerrendako 7. eta 8. puntuekin aurrera jarraitzeko botoa eman dute (gainerakoak abstentzioak dira). Ondorioz, jarduneko Kontseiluko lehendakariak 7. eta 8. puntuetako lana, Kontseiluaren geroagoko bilera batera atzeratu dela esan du, gehiengoz.

9. puntua. Galde-eskeak.

Txema Odriozolak Kontseilu honetan landuriko Erakunde arteko Organoari buruzko aginduzko txostenean zehaztasun gehiago eskatzen du, eta eragozpenik gabe onartu ote den (berak idazki bidez oharren bat bidali baitzuen). Gizarte Gaietako sailburuordeak erantzun dio hiru dekretuak landu direla, hori barnean; kasuari oharrak egin zaizkio eta Aktan jaso dira, eta ondoren Txostenean.

Galde-eske gehiagorik ez dagoenez, 2009ko urriaren 30eko 11:00etan eman da bukatutzat bilkura.

ERANSKINA.

2009ko urriaren 28an parte hartu zuten erakundeek harturiko Erabakia erantsi zaio akta honi eranskin gisa (haren 2. puntua betetzeko), Batzorde Iraunkor Ordezkoan GZEKren alderdi soziala ordezkatzeko duten 9 bokal aukeratzeko.

IDAZKARIA

OE.
Jarduneko LEHENDAKARIA

GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUAN ORDEZKARITZA DUTEN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO ERAKUNDEEN BILERA

Vitoria-Gazteiz, 2009ko urria

Xedea Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren **BATZORDE IRAUNKOR DELEGATURAKO ORDEZKARIAK HAUTATZEA**

BATZARTUTAKOAK:

IZEN-ABIZENAK		SINADURA	ORDEZKATZEN DUEN ENTITATEA
1	J. M ^a ODRIOZOLA		Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa
2	NATALIA DIEZ-CABALLERO		Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioa (HIRUKIDE)
3	AMAIA LOPEZ IRIONDO		CONFEBASK
4	GOTZON VILLAÑO		EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak
5	INMACULADA MUJICA		ALDARTE Elkarte
6	JUAN IBARRETXE		EAPN EUSKADI
7	M ^a JOSE CANO		FEDEAFES
8	JAVIER DOMINGUEZ		ONCE Erakundea
9	JESUS OTAÑO		Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoa
10	PEDRO FERNANDEZ		FEVAS
11	MIGUEL A. RUIZ DIEZ		Arabako hiesaren kontrako batzorde herritarra
12	ALBERTO PONTI		Hautzaroaren alorreko Batzorde Iraunkorraren ordezkaria
13	JUAN CARLOS SOLA		ELKARTEAN
14	MAITE DIAZ DE LEZANA		HARRESIAK APURTUZ (A.G.L.E.)
15	KARMELE ACEDO GIL		Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
16			
17			
18			

19			
20			
21			
22			
23			
24			

Aldez aurretik, eta gauzatu nahi den ekintzaren ondorioetarako, kontuan izan da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoa:

3.7. art.:

“Ordezkaritza orekatua: Euskal agente publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan.

Lege honen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat, hain zuzen sexu biek % 40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean joko da.”

23. art.:

“Herri-agente guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arazko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”.

Gorago sinatu duten entitateetako ordezkariak bildu gara gaur, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkor Delegatuan ordezkariak hautatzeko; hortaz, dagokion eztabaidaren ondoren, ondokoa

ERABAKI DUGU:

1.- Jarraian aipatzen diren pertsonak/entitateak aukeratzea Batzorde Iraunkor Delegaturako ordezkari gisa:

HAUTATUTAKO ERAKUNDEAK

KIDEA		ORDEZKATZEN DUEN ERAKUNDEA
1	José Manuel Odriozola Azurmendi	Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa
2	Natalia Diez-Caballero	Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioa (HIRUKIDE)
3	Juan Ibarretxe Kareaga	EAPN Euskadikoa (gizarteratzen eta gizarte-bazterketa larrian lan egiten duten erakundeen ordezkari)

4	Javier Domínguez Entenza	ONCE Euskadi
5	Pedro Fernández García	FEVASekoa
6	Miguel Angel Ruíz Díez	Droga-mendetasunen esparruko erakundeak
7	Alberto Ponti	Hurtzaroaren alorreko Batzorde Iraunkorraren ordezkaría
8	Juan Carlos Sola	ELKARTELANekoa
9	Maite Díaz de Lezana	Etorकिन Laguntzarako GKE-en Euskadiko Koordinakundea, "Harresiak Apurtuz"

2.- Erabaki hau Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurari eskuratzea, 2009ko urriaren 30erako aurreikusitako bilkuran, Eguneko gai-zerrendako 7. puntuan xedatutakoa betetzeko. (Akordio hau eranskin gisa gehituko zaio osoko bilkuran onartzen den aktari).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 28a.